

AGUR JAUNAK

1

Agur jaunak, jaunak agur,
Agur t'ardi.
Denak Jainkoak e(g)inak gire
Zuek eta bai gu ere.
Agur jaunak, agur,
Agur t'ardi, hemen gire.
Agur jaunak.

ARIN ARIN KRISTAUAK

2

Arin, arin, kristauak, arin bai Belena,
Jesús adoratzera ahal den lasterrena (bis).
Zer gertatzen ote da Belengo herrian
Gure Jesús jaio da seaskatxo batean,
Ta haruntz ta honuntz lasterka
artzaiak mendian
Elkar bilatzen dute ahalegin guztian

ARTZAIK DATOZ

3

Artzaiak datoz, oihu ta irritzi
mendian barrena,
eskaintzera bakoitzak
arkumetxo bana

“Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen,
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen”.

Jaungoikoaren herri
Maite Jerusalem,
Esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den

AGUR GUZTIOI

4

Agur guztioi kantari gabiltz
Denak alaitu desion,
esan nahiean Belengo izarrak
gaur Euskadi-ri zer dion.

Alaitasuna zabal dadila
ta izan bedi zorion,
gauza horiekin datozkigula
Eguberri eta Gabon.

Gauza ho(r)jieri zuzenbideak
bilatu behar gizonak,
eta horretan lagun daigula
gaur Belenen dagonak.
Urte berriak izan ditzala
guztientzat zorionak.
Agur guztioi, eskerrik asko,
ongi igaro gabonak.

HATOR HATOR MUTIL ETXERA

5

Hator, hator, mutil etxera,
Gaztainak ximelak jatera,
Gabon gaua ospatutzeko
Aitaren t'amaren ondoan;
Ikusiko dek aita parrezka
Ama're poz atseginez.

Eragiok mutil
Aurreko danbolin horri,
Gaztainak erre artean (bis)
Txipli txapa, pun...
Gabon gaua pozik igaro dezagun.

HEMEN HELDU GERADE

6

Hemen heldu gerade berri on batekin,
gure enbajadore Olentzerorekin.
Aditu duenean Jesus jaio dela,
lasterka etorri da berri ematera.

Horra, horra
gure Olentzero,
pipa hortzetan duela
eserita dago
kapiroak ere ba(d)itu
arraltzatxuekin,
bihar meriendatzeko
botila arduakin.

Olentzero joan zaigu,
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera
Aditu duenean
Jesus jaio dela
Lasterka etorri da
berri ematera.

Horra, horra...

ALAKEN

7

Alaken, txis pun! (bis)
Ala pikula tun paire,
Errespundela pikula tunpa
Jesus Maria Jainkoa zen (bis)

Adiskideok!
Ikusi al dezue zelai horietan artzaia,
Artzai txiki, artzai haundi,
artzai mutur leuna.

ARTZAIK DATOZ

8

Artzaiak datoz, oihu ta irritzi
mendian barrena,
eskaintzera bakoitzak
arkumetxo bana

“Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen,
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen”.

Jaungoikoaren herri
Maite Jerusalem,
Esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den

KANTA KANTARI DUADE ZERUAN

9

Kanta kantari daude zeruan,
Kanta kantari aingeruak,
Kanta aleluia, gaur aleluia,
Beti aleluia, kanta aleluia!

Epel epel sukalde giroan
Aitaren t'amaren ondoan,
Kanta aleluia...

AGUR ESKERRIK ASKO

10

Agur eskerrik asko, gaur etxekoak,
Hurrengo urtera arte
Hemendik bagoaz (bis)

ZATOZTE KRISTAUAK

11

Zatozte kristauak, bihotzak pozturik,
Zatozte guztiok, Be-le-nera,
Jaio dan gure
Jesus ikustera,
Jauna gurtu dezagun (bis)
Jauna gurtu dezagun auspezturik.

Ardiak utzita datoz artzai onak
Zerutik deituak estalpera.
Goazen gu ere berarkin batera.
Jauna gurtu dezagu...

Adeste, fideles, laeti triunfantes,
Venite, venite in Be-etlehen.
Natum videte, regem angelorum.
Venite adoremus (bis)
Venite adoremus dominum.

OLENTZERO BURU HAUNDIA

12

Olentzero buru handia
Entendimentuz jantzia,
Bart arratsean edan omen du
Hamar arruko zahagia.
Ai, urde tripa handia!
Tralaralala tralaralala.
Ai, urde tripa handia!
Tralaralala tralaralala.

2010-2011



Zorionak eta Urte berri on!



**IKASBIDE
KULTUR
ELKARTEA**